

FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Gure funtsezko baliabideak ondorengoak izango dira:

Alde batetik, **baliabide fisikoei** dagokienez, lokal atsegin bat izango dugu gure bezeroak gustura egoteko. Gainera, erakargarria izango da berezoak erakartzeko. Sukaldeko ekipazioa ere edukiko dugu, guztiz higienikoa izango dena. Elikagaiei dagokionez, jaki fresko eta onak beti izatea ere funtezkko baliabide fisikoak izango dira. Horrez gain, jakiak etxeetara bidaltzeko motorrak ere baliabide fisiko garrantzitsuak izango dira.

Beste aldetik, **giza baliabideei** dagokienean, sukaldeak azkar eta egoki funtzionatu beharko du eta, horretarako, bezeroei arreta egokia emateko gure ezagutzak, gaitasunak eta gogoak funtezkkoak izango dira.

Azkenik, **finantza baliabideei** dagokienez, garrantzitsua izango da dirua edukitzea dena ondo kudeatu eta ordaindu ahal izateko.